# *FUNTSEZKO SOZIETATEAK*




Gure hornitzaile nagusia teknologia bereziaz hornitutako edukiontziak ekoizten dituen enpresa izango litzateke eta gure enpresaren bazkidea izateko aukera emango diogu, erabilera zirkularra ere sustatzen dugulako. Guretzako bazkideak eta hornitzaile nagusiak garrantsitzuak dira, bazkide bakoitzak enpresarentzako diru aportazio bat egingo duelako eta hau beharrezkoa izango da enpresaren jarduera martxan jartzeko.

Gainera, herriko Udalarekin akordio batera iritsiko gara. Udalaren helburua herrian bizi den biztanleariaren eta enpresengan ongizatea bermatzea da, hori da udaletxearen benetako irabazia. Udal ezberdinekin aliantzak eginez, proiektua aurrera eraman dezakegu eta herriek birziklatzeko prozesu osotua aurrera eraman, gizartean onura bat sorraraziz.

Aurretik aipatutako aliantzez gain, gure enpresan lau bazkide izango gara, enpresan zuzenean lan egingo dugunak eta gure zereginak horrela banatuko dira:



- ***Paule*** bereroentzako arretaz arduratuko da; arazo bat sortzen bada bera arduratuko da konpontzeaz.
- ***Leire*** kontabilitateaz arduratuko da, hau da, enpresaren zenbakiak eramango ditu, diru-sarrerak eta kostuak ere kudeatuko ditu.
- ***Aitana*** marketing-az aduratuko da; enpresaren sare-sozialak eta iragarkiak kudeatuz eta bezeroak lortuz.
- ***Lorea*** enpresako CEO-a izango da eta arduradun nagusia izango da; arazorik egon ez dadin.

Astero txandakatzen joango gara kamioiarekin edukiontziak biltzeko. Beste bik latak eta botilak sailkatuko dituzte. Eta bat libre egongo da.